

Diruak ez du kiratsik; detergenteak, aldiz, bai



Stephanusen *fullonica* edo garbitegia, Pompeian.

PONPEIA, K.O. 79. URTEA. Vesubio sumendiaren erupzioak ustekabeen harrapatu zituen erromatar hiriko negozioak; besteak beste, Stephanusen *fullonica* edo garbitegia. Azarnategiko gainerako elementuak bezalaxe garbitegia oso ondo kontserbatu zuten errautsek. Eta badira ondo iraun duten beste *fullonica* batzuk ere; esaterako, Ostiakoa, Barcinokoa eta Herkulanokoa. Izan ere, erromatar hiri edo kolonia guztiek *fullonica* bana zuten gutxienez.

Jantziak nahiz etxeko arropa garbitzen zituzten negozio haietan. Detergente kimiko artifizialik ezean, gernua erabiltzen zuten; pixa garaiko garbigarri unibertsaltzat joenez, sail honetan bertan azaldu bezala hortzak garbitzeko ere erabiltzen baitzuten. *Saltus fullonici* edo ur berri-tze istiletan gernuaren amoniakoa ona zen togetako, tuniketako eta artilezko zapietako orbanak kentzeko. Gernua kareaz eta errautsez nahastu zuten, lehengai horiek zurigarri naturalak baitira.

Pixa guztiak ez ziren berdinak. Batzuek atzerritik inportatzen zuten —hispaniar gernuaren dohain garbigarriak ezagunak ziren—, baina gehienetan komun publikoetan bildutako likidoa erabili behar zuten. Baziren negozio autarkikoagoak ere: dendaren hormetan anfora erdiak jartzen zituzten oinezkoek maskuria arindu

zezaten. Pompeian idazkunak aurkitu dira, herritarrei pixa egiteko gonbitea egiten dietenak.

Soda eta gernua nahastuta, esklaboek jantziak eta oihalak zapaltzen zituzten, detergente kirasdunaz ondo busti arte. Orbanak kendu ondoren, arropak kanpoan zegoen istil handiago batera eramaten zituzten, eta *impluvium*-ean bildutako euri uretan pasatu, xukatu eta eguzkitan lehortzen uzten zituzten. Herritar aberatsenek txanpon batzuk gehiago ordaindu eta *fullonica*-ko esklaboek arropak lore eta belar esentziez lurrindu zizkieten, pixa usainaren arrastoak ezabatzeko itxaropenez.

Dirua edozein jardueratik biltzeko grinak bultzatuta, Vespasiano enperadoreak garbitegietan edo letrina publikoetan herritarrek uzten zuten gernuaren gaineko zerga ezarri zuen. Suetoniok jaso zuenez, enperadorearen seme Titok erabakia itsustu zion aitari. Vespasianok, orduan, *aureus* bat atera zuen poltsatik eta urrezko txanponaren usainak gogaitzen ote zuen galdetu zion Titori. Semeak ezetz esan ondoren, aitak zera erantzun zion: “Eta, hala ere, pixatik dator”. Orduan sortu omen zen *Pecunia non olet* (Diruak ez du kiratsik) latinezko esapide ezaguna. ■



Arrastoak

Zergatik ez dago aita santu bizardunik?

INOZENTZIO XII.A (1615-1700) bizarra hazten utzi zuen azken pontifizea izan zen (beheko irudian). Lehenago Inozentzio X.ak ere ahuntz bizarra izan zuen. Paulo V.ak, Klemente VIII.ak, Leon XI.ak eta Urbano VIII.ak, aldiz, bizar sarriagoa zuten. Beraz, aita santu bizardunak ez ziren salbuespena.

Baina eliza katolikoak luza-roan moral gabetzat jo zuen bizarra, egindako bekatuak adierazten zituela uste baitzen; harrigarria, Jesukristo bera gehienetan bizarrak irudikatu izan dela kontuan hartuta.

Kontua da 1119an, Tolosako Kontzilioan, aurpegiko ilea hazten uzten zuen elizgizon oro eskumikatzea erabaki zutela. Debekua ez zen luzaroan indarrean egon, eta edozein hierarkiatako elizgizon bizardunak izan ditugu geroztik. Richelieu kardinal ezaguna, konparazio baterko.

Baina ia 900 urtetan aita santu bat bera ere ez da ausartu aurpegiko ile bekatariak hazten utzi eta eliztarren aurrean *look* berria erakusten. ■



TIDBITS FROM ARCHAEOLOGY